



UDALAREN 5.KREDITU ALDAKETA

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

ESPEDIENTE HASIERA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Udal honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Beraz, premiazkoa da kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea, proposamenean zehazten den kopuruan kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko. Horregatik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera, hau ebatzi dut:

Hasiera eman dakiola kreditu gehigarrien espedienteari, aipatutako xedapenean jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: proposamena, finantzaketaren ziurtagiria, Kontu-hartzailearen txostena; organo eskudunaren onarpena, eta egonkortasun txostena.

Zumaian,

Alkatea

72443977A IÑAKI OSTOLAZA (R: P2008700C)
2023/04/24



KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.203.153.41.01 2023	IBILGAILUAREN ALOKAIRUA- BRIGADA	0,00	6.957,50	6.957,50
1 0100.624.153.41.01 2023	BRIGADARAKO FURGONETA ELEKTRIKOA	0,00	90.000,00	90.000,00
1 0800.227.920.00.95 2023	TAILER OKUPAZIONALA	4.200,00	882,00	5.082,00
1 1000.227.920.00.97 2023	LANPOSTUEN BALORAZIOA	0,00	2.178,00	2.178,00
1 0900.205.929.01.01 2023	Bake Epaitegia FOTOKOPIAGAILUA RENTING	0,00	300,00	300,00
1 0300.226.336.00.99 2023	MEMORIA BIZIKIDETZA	8.000,00	1.270,50	9.270,50
1 0900.205.332.10.01 2023	Liburutegia. FOTOKOPIAGAILUA RENTING	0,00	963,36	963,36
1 0100.226.334.00.99 2023	KOMENTUKO OBRAREN HAINBAT GASTU	0,00	942,95	942,95
1 0100.211.432.00.01 2023	KONPONK. ETA MANTENIM. TURISMO BULEGOA	800,00	1.401,70	2.201,70
1 1000.220.929.01.01 2023	EPAITEGIKO BULEGO MATERIALA	800,00	795,94	1.595,94
1 0300.226.336.00.98 2023	ONDARE HISTORIKOA	0,00	1.367,30	1.367,30
1 0200.227.335.00.07 2023	ITZULPENAK	2.000,00	4.000,00	6.000,00
1 0100.601.153.21.01 2023	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	225.200,00	208.519,11	433.719,11



Zumalako Udala
KREDITU ALDAKETAK

2023KCRE0002
2023-KALD-000005-00
Kreditu gehigarriak

1 1200.227.231.50.97 2023	BERDINTASUN BEKAREN DIFUSIOA	0,00	2.178,00	2.178,00
1 0100.601.153.21.04 2023	ERRIBERAKO KANALAK	0,00	60.000,00	60.000,00
1 1200.226.231.50.92 2023	AHOLKULARITZA	1.500,00	900,00	2.400,00
1 0100.714.161.00.01 2023	UR HORNIDURAKO HODI NAGUSIA ALDATU-ETS	0,00	400.000,00	400.000,00
1 0100.601.153.21.05 2023	BALTASAR ETXABEKO REKALTZEA	0,00	80.000,00	80.000,00
GUZTIRA		242.500,00	862.656,36	1.105.156,36

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2023	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	862.656,36
FINANTZAKETA GUZTIRA			862.656,36

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,

Alkatea

72443977A IÑAKI OSTOLAZA (R: P2008700C)
2023/04/27



KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA

GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINITZA GERAKIN ERABILGARRIA

Nik, Nerea Azpillaga Echevarriak, Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, 2022ko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta 2023ko aurrekontuan orain arte egindako kreditu aldaketak aztertuta

Ziurtatzen dut:

Gastu orokorretarako diruzaintza gerakin likido erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabili litekeena, 8.036.491,45 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

Diruzaintzako gerakina guztira	13.958.032,32
(-) Kobrantsa zalantzarriko saldoak	2.268.621,63
(-)Gehiegizko finantzaketa lotua	3.413.813,50
Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina	8.275.597,19
(-) Aurreko kreditu aldaketetan erabilitako diruzaintzako gerakina	239.105,74
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin erabilgarria	8.036.491,45

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Alkatearen aginduz eta oniritziz.

Zumaian,

O.I.
Alkatea

72443977A IÑAKI OSTOLAZA (R: P2008700C)
2023/04/24

Kontu-hartzailea

NEREA AZPILLAGA ECHEVERRIA
2023/04/24



Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2023ko apirilaren 14ko Dekretuan agindutakoa betez, eta 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketan espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-oso finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udaltzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Zumaian,

Kontu-hartzailea


NEREA AZPILLAGA ECHEVERRIA
2023/04/24



TXOSTENA

**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN
HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Zumaia Udalaren 2023ko 5.kreditu aldaketa (gehigarria-Osoko Bilkuratik)

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERREDA:

ZUMAI
ZUMAIAKO KIROL PATRONATUA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Zumaia Udalaren 2023ko 5.kreditu aldaketako aurrekontu bateratuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 8.471.156,40 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Aipatu beharra dago defizita ez dela udalaren ohiko jarduerengatik, 2023 urtean aurrera eraman nahi diren obra konkretu batzuk mailegu bidez finantzatu behar izatearen ondorioz baizik.

3/2022 Foru Dekretu araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoak dionaren arabera, 2023rako ezarritako helburua: 2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz, udalenzako defizit globaleko helburu hauek ezartzen dira: -0,0134. Zumaia Udalaren kasuan, 148.420€-rainoko defizita izatea da.

Hori horrela izanik, Zumaia Udalaren 5.kreditu aldaketako aurrekontu bateratua kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2023ko helburua,



ZUMAIAKO UDALAREN 2023KO 5.KREDITU ALDAKETA

beraz, likidazio momentuan egoera honetan egonez gero, Zumaiako Udala behartuta egongo da plan ekonomiko-finantziero bat egin eta onartzera, plan ekonomiko hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Finantzen iraunkortasuna

2023ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2023an likidatutako sarrera arruntan %5,52 izango dela aurreikusten da. Jarraibidearen arabera, kalkulua egiteko 2023ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, ekitaldian exekutututako abalak barne, eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta kenduko zaizkio ekitaldian itzultitako abalak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2023rako, ezohiko izaeraz, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek esan nahi du aurrekontu egonkortasunaren, eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte honetan.

Zor bizia: %5,52.

Sarrera arruntak: 16.125.818,83

Zorra mankomunitatearekin, Urtetako zabortegiaren kudeaketa: 587.462,19 (27.974,39*21).

IDAE mailegua: 303.465,33

2023/12/31rako aurreikusitako zorra: 890.927,52

Hala ere, kontuan izan behar da 2023an zehar zenbait proiektu aurrera eramateko mailegua eskatu behar izatea aurreikusten dela. Beraz, 2023ko abenduaren 31ko zorra altuagoa izan daiteke. Aurrekontuan aurreikusitako mailegu guztia hitzartuz gero, 2023ko abenduaren 31ean aurreikusitako zorra 8.279.698,74 izango litzateke, eta zor bizia %51,34.

Gastuaren araua

2023rako, ezohiko izaeraz, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek esan nahi du aurrekontu egonkortasunaren, eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte honetan.

Hala ere, nahiz eta momentu honetan Zumaiako Udalaren 2023ko 5.kreditu aldatetako aurrekontu bateratua aztertzen gaudenean, kalkulatzera goaz:

Gastu konputagarria: 23.583.308,24

3- ONDORIOAK

Zumaiako Udalaren 2023ko 5.kreditu aldatetako aurrekontu bateratuaren espedienteak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunerako 3/2022 Foru Dekretu-Arauak ezarritako muga.

Zumaia,

Kontu-hartzailea